

Topalekua

101 zk. 2019ko azaroa

EHU/UPVko GIZARTE KONTSEILUA
CONSEJO SOCIAL DE LA UPV/EHU

UPV/EHUren egoerari dagokionez, gizarteari kontuak emateko hogei adierazletik hamabik aurrerapen egokia erakusten dute

Gizarte Kontseiluaren osoko bilkura urriaren 16an bildu zen Bilbon. «UPV/EHU Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak gizarteari kontuak emateko erabiltzen dituen adierazleen sistema»ren gaineko txostenaren 2019ko azken bertsioa aztertu zuten.

2008az geroztik, Kontseiluak urtero neurtzen du unibertsitate publikoaren gizarte-helburuen betetze-maila. Hala, 2019ko azterlanak jasotzen duenez (2016-2017 ikasturteko informazioa bildu eta aurreko urtearekin eta serie historikoarekin alderatzen du), UPV/EHUK aztertutako 20 adierazleetatik hamabitan izan du hobekuntza. Hain justu ere, finantzaketa, trebakuntza, ingurune beharrianetara egokitzea, I+G+b ikerketa, nazioartekotzea, hizkuntzaren erabilera normaltzea eta gizarte-erantzukizuna dira hobetutako alderdi horiek.

Txostenaren helburua UPV/EHUri eta haren epe luzeko bilakaerari buruzko ikuspegia ematea da, erabakigarritzat jotako 20 adierazle baliatuta; horrez gain, eskuratutako emaitzei buruzko oinarritzko xehetasunak eta ekarritako balioa ematen ditu, gizarte-helburuak zenbateraino bete diren zehazten du, eta ezaugarri antzekoak dituzten unibertsitateen adierazleekin alderaketa egiten du. Txostenaren azken edizio horretan datu fidagarriak ematen dira, eta aukera ematen dute UPV/EHUren funtzionamenduan gako diren bederatzi arlotan ondorioak ateratzeko.

ALORRAK	ADIERAZLEAK	EBOLUZIOA	
		Epe luzera	Azken datua
1. FINANTZIAZIOA	1. Transferentzia arruntak / Gastu arruntak	↓	=
	2. Gastu arrunta / ikasleko	↑	↑
2. ZENBATERAINO SARTUTA DAGOEN	3. EHUn estaldura-tasa	↓	↓
3. PRESTAKUNTZA	4. Uzte-tasa	↓	↓
	5. Errendimendu-tasa	↑	↑
	6. Arrakasta-tasa	↑	↑
	7. Enpresetan borondatezko praktikak egiten dituztenen tasa	↑	↑
4. INGURUNEN BEHARRERARA EGOKITZAPENA	8. Unibertsitateko tituludunek jasotako gaitasunen baliagarritasunaren balorazioa	–	–
	9. Bat etorritako enplegu-tasa	↑	↑
	10. Lehengo enplegua lortu bitartean igarotako denbora	↑	↓
5. I+D+b IKERKETA	11. I+G+b-ren diru-sarreraren tasa/zuzeneko kontratazioa	↓	↓
	12. Doktoretza-tesiak / 100 irakasleko	↑	↑
	13. Patenteen eskaera / milioi bat biztanleko	↓	↑
	14. Zientzia-ekoizpena / 100 irakasleko	↑	↑
6. NAZIOARTEKOTZEA	15. Graduan matrikulatutako ikasle atzerritarren tasa	↑	↑
	16. Master ofizialetan atzerriko unibertsitateetatik datozen ikasleen tasa	↓	↓
7. PRESTIGIOA	17. Akreditazioa berritzen zaien tituluaren ehunekoa	–	–
8. HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOA	18. Graduak euskarazko derrigorrezko kredituen tasa	↑	↑
9. GIZARTE-ERANTZUKIZUNA	19. Emakume doktore irakasle eta ikertzaileen tasa	↑	↑
	20. Graduak ikasketetan matrikulatutako emakumezko ikasleen tasa	↓	↑

↑ Adierazleak gora egin du
(epe luzera nahiz azken ikasturtean).

↓ Adierazleak behera egin du.


= Adierazlea egonkor dago.

– Adierazle berria.
(2. orrietan jarraitzen du)

(1. orritik dator)

EZAGUTZA-ARLOAREN ARABERAKO ARRAKASTA-TASA UPV/EHUn

Iturria: Iker, SIU. Unibertsitate-adierazleen estatistika



Nabarmentzekoak dira azterlanaren arabera ondorio nagusi hauek:

- Ondoriorik nabarmenenetako bat prestakuntzaren esparruan lortutako emaitzen adierazleetan ikusten den hobekuntza da. Ezagutza-arloen arabera, Osasun Zientziak berriro gailentzen dira: arrakasta-tasa %95etik gorakoa da; eta haien atzetik Arteak eta Humanitateak datoz (%92,5). Ingeniaritzan eta Arkitekturan balio txikiak biltzen dira berriro ere: %79,4.


Enpresetan borondatezko praktikak egiteko tasak irrimo jarraitzen du gora egiten, eta koherentziaz eusten dio unibertsitatearen eta ingurune ekonomikoaren eta profesionalaren arteko lotura handiagoa sustatzeko estrategiari. Eskola-uztearen tasa ere hobetu da.

- Estatuko unibertsitate publikoetako ikasketa zuzenetan lortu den arrakasta-tasa baino handiagoa da UPV/EHUk gradu-titulazioetan lortu duena (%87,4); eta G9 taldearekin alderatzen baldin bada, UPV/EHU lehen postuan dago sailkapenean. 2016-2017ko ikasturteko arrakasta-tasa, hau da, kreditu gaindituen eta kreditu aurkeztuen arteko ehunekoa, %88,6 da UPV/EHUn, gradu-titulazio-multzo osorako.

- Finantziarioaren eta gastuen arloan, azpimarratzekoa da unibertsitate-jardueraren sektore publikotik etorritako transferentzia arrunten bidez finantzatu dela neurri handian (2017an, finantziarioaren %86,3). Ikasketa zuzenak ematen dituzten estatu-unibertsitate publiko guztiekin erkatuta, ehuneko 20 puntuko aldea dago.
- Datu berri gisa aipatu behar da 2019ko edizioan *STEM* diziplinetako matrikulen bilakaera aztertu dela, *STEM* arloko profil profesionalik ezaren gaineko kezka dela eta. UPV/EHUn matrikulen %31 osatu dute, 2018-2019ko ikasturtean; eta 2014-2015eko urtean, aldiz, %32 hartu zuten.
- Teknologia-ikerketaren, -berrikuntzaren eta -garapeneren arloan, azken emaitzek ere ez dute erakutsi funtsezko hobekuntzarik; izan ere, Euskadi, oro har, behera egiten ari da Europako berrikuntza-indizean.
- «Nazioartekotze»-adierazleek erakusten dute gradu-ikasketetan atzerriko ikasle gehiago etorri direla.
- Bestalde, «hizkuntzaren normalizazioa»-ri buruzko adierazleak dagokionez, euskaraz eskaini diren nahitaezko kredituen tasak gora egin du (%75,9, 2017-2018ko ikasturtean).

ARRAKASTA-TASEN ARTEKO KONPARAZIOA 2016-2017 IKASTURTEA

Iturria: Iker, SIU. Unibertsitate-adierazleen estatistika

**2018ko ekitaldiko kontuak onartu dira.**

Urriko bilkura berean, Kontseiluak UPV/EHUren 2018ko kontabilitateko egoerak onetsi zituen. Hasierako aurrekontua 410,1 milioi eurokoa izan zen, baina aurreko ekitaldietako soberrak gehitu ondoren, 508,1 milioi eurora igo zen. Unibertsitateak %83,99 exekutatu du. Era berean, unibertsitateak partaidetza maioritarioa dauka beste erakunde batzuetan, eta erakunde horien kontabilitateko egoerak ere onetsi zituen bilkura berean. Erakunde horiek, besteak beste, Euskoiker, UPV/EHUko Uda Ikastaroak eta Medikuntza eta Zientzia Historiaren Euskal Museoa dira.

Bilkura horretan ordainsari gehigarrien urteko deialdia ere onetsi zuten; horrela, irakasleek eta irakasleek ordainsari eskatu ahaliko zituzte. Ordainsari horien bidez aintzat hartzen dira irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren arloko merituenak. Azkenik, beste puntu batzuen artean, Kontseiluak 81 ikastaro osagarriren prezioak baliozkotu zituen. Ikastaroak 2018ko martxoetik 2019ko ekainera bitartean eman dira. Horrekin batera, aurrekontuaren aldatzea batzuk ere onartu zituen.


% 2,9KO IGOERA, AURREKO EKITALDIAREN ALDEAN

Gizarte Kontseiluak 422 milioi euroko aurrekontua onartu du UPV/EHUrentzat, 2019. urtean

UPV/EHUn Gizarte Kontseiluak Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen 2019ko aurrekontua onartu zuen, Bilboko uztailaren 22ko osoko bilkuran. Orotara 422,05 milioi eurokoa da; iazko aurrekontuan baino % 2,90 gehiago.

2004-2019 ARTEKO AURREKONTUAREN BILAKERA

AURREKONTUA



Osoko bilkurak 2019ko aurrekontua onartzea erabaki zuen, aztertu ostean UPV/EHUn Gobernu Kontseiluak maiztaren 30ean onartutako proiektua eta Gizarte Kontseiluaren Ekonomia eta Finantzen Batzordeak aurrekontu-proiektuari buruz emandako txostena. Esandako txosten horretan, funtsezko informazio berria aztertu, eta ekonomia- eta finantza-analisi xehatua egiten zen, kapitulutan, programatan eta gastu-unitatetan banakatuta. Honako hobekuntza-gomendio hauek proposatzen ziren:

- Aurrekontuaren proiektuan aurreko urteetako unitate-gastuen banakapen bera jaso behar da, aurrekontua osatzen duten gastu-unitateen banakapena ezagutu ahal izateko; eta likidazioan hasierako aurrekontu gisa jaso behar da aurrekontuaren proiektuan adierazitakoa.
- statutuak betetzeko eta trantsizio-aldirik egon ez dadin, dagokion urtea hasi baino lehen onartu behar du UPV/EHUK aurrekontua.
- Aurrekontuaren proiektuarekin batera, UPV/EHUn erakunde instrumentalen aurrekontuak ere aurkezteko gomendioa ematen da. Horrez gain, irabazi-asmorik gabeko erakunde txiki eta ertainen kontabilitateko planean ezarritakoak bezalako banakapena eta egitura jaso behar harko lirateke aurrekontu horietan.
- Gizarte Kontseiluen oinarritzko gidan jasotako gidalekroak eta gomendioak bete behar dira, unibertsitatearen aurrekontua eta urteko kontuak onartzeko eta likidatzeko.

AURREKONTUA, GASTU-KAPITULUEN ARABERA

	2018	2019
Langileria-gastuak	316.258.240	324.302.254
Funtzionamendu-gastuak	71.057.862	74.266.170
Finantziario-gastuak	166.493	134.126
Transferentziak eta gastu arruntetarako diru-laguntzak	2.132.631	1.945.651
Egiazko inbertsioak	17.607.319	18.428.348
Finantza-aktiboen aldatzea	70.000	70.000
Zorren amortizazioa	2.156.559	2.549.552
Beste batzuk	356.000	356.000
GASTUAK GUZTIRA	410.165.097	422.055.108

Kapituluen arabera azterketan jasota dagoenez, UPV/EHUK honela antolatuko ditu diru-partidak:

- **Langileen gastuetarako** (I. kapitulua) 324,3 milioi euro: guztizkoaren % 76,8, eta 2018an baino % 2,54 gehiago..
- **Gastu arruntetarako** (II. kapitulua) 71,05 milioi euro: guztizkoaren % 17,6, eta aurreko urtean baino % 5,9 gehiago.
- **Inbertsioetarako** 16,75 milioi euro (VI. Kapituluak): aurrekontuaren % 4,36, 2018an baino % 4,7 gehiago.
- **Zorra amortizatzen** (IX. Kapituluak) 2,51 milioi-kia izatetik 2,54 milioi-kia izatera aldatu da; beraz, % 0,13 handiagotu da, aurreko urtearekin erkatuta.
- Gainerakoa finantziario-gastuek, transferentziek, diru-laguntzek eta Gizarte Kontseiluaren aurrekontuak osatzen dute. Aurrekontuaren zuzkidura 356.000 eurokoa da; aurreko ekitaldiko kopuru bera, hain zuzen ere.

Beste erabaki batzuk: ikasketak, tasak eta bekak ezartzea.

Kontseiluak erabaki zuen honako proposamen hau egitea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari: batetik, 2019-2020 ikasturtean lau master-titulazio berri ezartzea; eta, bestetik, egun arte eman diren bost titulazio ezabatzea, betiere, azken ikasketa horiek egiten ari diren ikasleei bermatuta aplikagarriak diren deialdiak edukiko dituztela. Honako hauek dira datorren ikasturtean ezarriko diren master berriak:


- Hiri eta Komunitate Adimenduak Erasmus Mundus Masterra
- Energia Biltegitatzeko eta Eraldatzeko Materialak Erasmus Mundus Masterra
- Mikrouhinetako Elektronika eta Optika Berritzaileak Erasmus Mundus Masterra
- Subiranotasuna Europako Herrietan Masterra

Gainera, osoko bilkurak, besteak beste, graduondoko 57 titulu propioen matrikula-prezioak onetsi zituen.

Euskal Herriko Unibertsitateko 2015eko promozioaren laneratze-tasa % 91,96 izan da, 2018. urtean

UPV/EHUko ikasleen laneratzeari dagokionez, 2015eko promozioiko ikasleei buruzko inkestak erakusten du hiru urte geroago % 91,96 dela ikasleen laneratze-tasa. Lanbidek 2018. urtearen amaieran egin zuen kontsulta, eta une hartan promozio horretako ikasleen % 87 jada laneratuta zeuden. Gainerako % 7 irtenbide profesionalen bila zebiltzan, eta % 6 graduondoko ikasketak edo beste ikasketa batzuk egiten ari ziren, inkesta egin zen garaian.

2015eko PROMOZIOKO IKASLEEN LANERATZEA (2018-IV)



Uztailaren 22ko bilkura berean, «UPV/EHUko ikasle tituludunen laneratzeari buruzko azterlana»ren emaitzen aurrerapen bat ere aztertu zuten. Gizarte Kontseilua-aren ekimenez, Lanbidek urtero egiten du inkesta hori, 1997tik. Ikasleek ikasketak amaitu eta hiru urtera egiten du inkesta Lanbidek, denboraldi hori ibilbide profesio- nala sektore edo lanbide batera bideratzeko nahikoa delakoan. Urte bakoitzean Lanbidek 26.000 pertsona inkestatzen ditu, UPV/EHUko ikasleen laneratzeari buruzko adierazleak ezagutzeko. 2015eko gradu-ko pro- mozioak hiru urte daramatza lan-merkatuan, eta na- barmentzekoak dira datu hauek:

- Euskal Herriko Unibertsitateko 2015eko promo- zioaren laneratze-tasa % 91,96 da, 2018. urtean.
- Unibertsitateko prestakuntzak aukera ematen du goi- mailako soldata ertaina jasotzeko.
- Lanaldi osoa betetzen dutenen batez besteko soldata 1.560 euro garbikoa da hilean, 14 paga ezarrita; eta 864 eurokoa, lanaldi murriztua badute. Zehazki, honako hauek dira lanaldi osoko batez besteko soldata gar- biak ezagutza-arloen arabera: Zientzia Esperimenta- lak (1.290 euro); Zientzia Ekonomikoak eta Juridikoak (1.420 euro); Gizarte Zientziak (1.448 euro); Humanita- teak (1.480 euro); Zientzia Teknikoak (1.677 euro); eta, azkenik, Osasun Zientziak (1.795 euro).


- Faktore pertsonal eta sozial anitzek eragina izaten dute laneratze-prozesuan, baina ikasketak amaitu dituzten ikasleek alderdi akademikoak jotzen dute aldagai nugu- sitzat, eta hori oso esanguratsua da. Zehazki, garrantzi berezia ematen diote titulazio zehatzari eta, horrekin batera, unibertsitate-praktikak, graduondoko espezia- lizazioa eta atzerriko hizkuntzak jakitea ere garrantzi- tsutat jotzen dituzte. Hortaz, ondoriozta daiteke uni- bertsitate-prestakuntza funtsezkoa dela kualifikazio handiko lanbide-erantzukizunak eskuratu ahal izateko.
- Hizkuntzetan –bereziki, euskarari eta ingelesari dago- kienez– aldakorrek dira erabilera-ehunekoak, baina garrantziatsuak dira ezagutza-arloei lotutako lanetan.

Laneratzeko faktore erabakigarriak

% 42ren kasuan, alderdi akademikoak erabakigarriak izan dira. Halaber, honako faktore hauek ere erabaki- garritzat jo dituzte: aurreko lan-eskarmuntua (% 31); gizarte-ingurunea eta norberaren ezaugarriak (% 31) eta prestakuntza osagarria (% 27).

Beren iritzia adierazi duten pertsonen laneratu diren pertsonen artean, unibertsitate-tituluren bat eskatzen duten lanpostuen batez besteko ehunekoa % 82 da. Di- ziplinen arabera, maila handienekoa osasun-arlokoa da (% 98); eta txikiena, aldiz, humanitateen arlokoa (% 66).

HILEKO SOLDATA GARBIA, 14 PAGA EZARRITA, EZAGUTZA-ARLOAREN ARABERA (pertsona laneratutak



UNIBERTSITATE-TITULUA ESKATZEN DUTEN ENPLEGUEN % (pertsona laneratutak)

